



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN
INGURUMEN KUDEAKETAKO POLITIKAREN EZARPENA
FORU JAUREGIA (Gipuzkoa Plaza, z.g.)

Gipuzkoako Foru Aldundiko Foru Jauregiaren Ingurumen Batzordeak, zentroaren ingurumen kudeaketako sistemaren arduraduna den aldetik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Iraunkortasun politika berea egiten du, 2009ko ekainaren 9an Diputatuen Kontseiluan onartu zena.

Era berean, bere gain hartzen du zentroaren barne kudeaketa hobetzeko eta bere jarduerak sortzen duen ingurumen-inpaktua minimizatzeko ekimenak garatzeko konpromisoa, baliabideak eta energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko eta hondakin eta emisio kutsatzaileak murrizteko irizpideak txertatuz, garapen ekonomikoaren eta ingurumenaren babesaren arteko oreka egokia lortze aldera.

Konpromiso hori bat dator Nazio Batuen Erakundearen Garapen Jasangarriko 12. Helburuarekin. Helburu horrek erakundeetan ekoizpena eta kontsumo arduratsua sustatzen ditu, honako hauek bilatuz:

- Ingurumena babestea eta egoitzaren jarduerak eragindako inpaktua minimizatzea.
- Aplikagarriak diren legezko eskakizunak edo bestelako eskakizunak betetzea.
- Kudeaketa sistemaren etengabeko hobekuntza bultzatzea, honako ziklo honetan oinarrituta:



Ziklo horrekin, honako hau lortuko dugu:

FORU JAUREGIKO INGURUMEN KUDEAKETAKO SISTEMA ETENGABE HOBETZEA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Foru Jauregiaren Ingurumen Batzordeak onartua

<p>Juanjo Nebreda Ingurumen Kudeaketa Sistemaren arduraduna</p>	<p>Haritz Ugarte ZB, Administrazioaren Berrikuntza eta Eraldaketa</p>	<p>Goizeder Manotas Zerbitzuetako eta Administrazioaren Berrikuntzako eta Eraldaketako ZN</p>
--	--	--

2022ko ekainaren 15ean